

Goibekokale

EL GETAKO ALDIZKARIA

997ko abendua. 30 zk.

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

**DENBORA ERE AURRERA DOA
ZAINDUAZ BERE NEURRIA,
URTE ZAHARRAK AGUR ESANDA
BADATOR URTE BERRIA**

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

Atzerapenez datorren erreakzioa

Aurreko aleko gurasoen elkarteko elkarrizketa irakurri ondoren eta eskola berriari eta honen inguruari buruzko iritzia ezagutzean, eraikuntza egiten ari zireneko garaiaz gogoratzen naiz, erabat suminduaraziz: haserraldi, enfrontamentu eta hainbat eta hainbat disgustu.

1. Magdalenako ermita botatzea, XVII. mende aurreko eraikuntza.

2. Gure familiari erakutsi zioten proiektua eta eraiki dena, ez dira inondik-inora ere berdinak.

3. Eskolaratu behar den haur kopuruak ez du behar dimentsio faraonikoak dituen eraikuntzarik.

4. Gure lurren espropiazioa.

5. Alkate jaunak nere anaia epaiketa prozesu baten sartzea.

Herri guztiak aitzera izan zuen etxekook udaletxearekin eta bertako teknikoekin izan genituen gora-beherak. Baina orduan ez zen inor gugana etorri, ezta gaiaz arduratzerara ere (eskolako proiektua eta ondorioak).

Azkenean eta osasuna ez galtzearren uztea erabaki genuen. Borroka galdu genuen baina asko ikasi genuen pertsona batzuen barruan dagoen prepotentzia, enbidia eta gorrotoari buruz.

Oraindik orain gogoratzen dut Magdalenako ermita bota zuteneko egunaz. Herri erdia etorri zen ikustera eta umeak ere eskolatik atera ziren, denak ere, gertakizun hau, egun haundi eta ahanztezin bat bezala gordetzeko. Ermita ez

botatzeko ahaleginetan ere arituginen, Arartekoarekin, Kultura sailarekin eta Bergarako talde arkeologiko batekin harremanetan egon ondoren. Hor ere administrazioaren interesa herriaren memoriaren gainetik.

Eta orain Jaun Andreok, hor dugu eskolako eraikuntza, mustutzar bat. Inguruaren benetan negargarria da eta haurrak bertako arriskuez arduratu gabe, sartzen eta irtetzen ari dira zulo eta bitartetatik, gauez zein egunez. Plan berri bat omen dago, zergatik? Zer gertatu zen proiektu osoa amaitzeko eman zen diruarekin?

Guztiok dugu herri honetan gertatzen diren gauzen ardura. Denok dugu gertatzen diren gauzen berri jakiteko eta informatuta egoteko eskubidea. Denok dugu eskolako proiektu honen geldialdi eta utzikeriaren arrazoia jakiteko eskubidea. Ez dit ezertarako balio dirua amaitu denaren arrazoia. Zeren eta:

1. Zenbat diru jaso zen?
2. Zenbat eta nola erabili zen?

Proiektu baten planifikazioak, gestio egoki bat eskatzen du eta hemen zerbaitek huts egin du.

Denok gara arduradun eta gure eginbeharra galdetzea eta zergatiak jakitzea da.

Garbiñe Etxebarria
N.A.N 72.563.827

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen esku-titzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Esku-titzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni esku-titzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobreak *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

AENOR


ER

Empresa
Registrada


ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61



Enkarguz eta Gaboneri buruz

Ez nuan uste "*Goibekokaleko*" kolaboratzaile bihurtzea hain erreza izan zitezenik. Nere kasuan behintzat ez didate aukeraketa luzeegirik egin, Ibanekin liburutegiko eskaileretan tope egin, proposamena jaso, argazkia atera eta hemen nauzue irakurleoi entretenimendua eskaini nahian. Eta urtearen azkenetan gaudenez, zer gai egoigorik Gabonak baino.

Denok dakigu Gabonak direla familia giroan ospatzeko jai nagusiak eta horrela familiarekin lotuta dauden balore on guztiak goraiatzeko garaia, maitasuna, alkartasuna, zoriona, etab. Horren frogarik nabariena gu guztiok murgiltzen garen erosketa zorarena izan daiteke, erosketok familiaren lokarriak sendotzeko izan arren.

Baina askotan Gabonak sufriarazteko ere gertatzen dira. Urteero komunikabideetan agertzen denez, egun hauetan jende asko izaten da depresioak jota, okerragorik gertatzen ez zaienean. Izan ere, ulertzekoa da eredu ofizialetik hurrunduta bizi direnentzako, Gabonak direla heuren egoera inoiz baino biziago sentitzen duten momentua. Bakardadean, gaitoxasunean, edota familikoekin ezin ikusian daudentzat, derrigorrez gogorra izan behar zoriontsuak izateko egun ofizialetan itxura ere ezin gorde izana.

Jakina, nik ez dut horiendako soluziorik baina seguru nago gutxiago sufrituko luketela Gabonetan horrenbesteko zalaparta eta publizitaterik ez balego. Badirudi garai honetan behartuta sentitzen garela zerbait berezia izaten. Nere ustez ez da hori asuntua baldin eta ez badugu nahi zurikeriazko zoriontasunean bizitzea edota zoriontsu sentitzen ez direnak gezurrezko zerbaiten ametsetan edukitzea.

Dena dela, eta gogoeta sakon gehiago gabe, bihotzez Eguberri zoriontsuak guztioi.

Eduardo Zubiaurre



Telemaratoiak

Hauxe da ahoa zabalik laguntzea.

Azken bi astetan, hiru telebista katetan jende askok bere kontzientzia lasaitzea lortu du.

Telebistak indar handia daukala ez dago zalantzarik, telebista kate desberdinetan egin diran telemaratoi, subasta... edo dana dalakoek, arrazoi eta helburu desberdinatarako diru asko jasotzea lortu dute. Espero dut, azken finean, diruak premia eta benetako beharrak asetzeko balio izana.



Onartzen ez dudana da, solidaritate banderapean etxe komertzialek propaganda egiteko aukera aprobetxatzea.

Gustoa da, etxe komertzial desberdinen izena aipatzen zen bakoitzean, era lotsagarri batean, hauek, arrazoi zilegi bategatik milioi bat bestearen ondoren ematea.

Baliteke, eta hori da nik pentsatu nahi dudana, propaganda lotsagarri hori guztia egin zen bitartean, jende askoren kontzientzia lasai gelditzeaz gain beste askoren sabelak betetzea.

Askotan, iparra galdu dugula uste dudana arren, ez dago gauza guztiei alderdi positiboa aurkitzea bezalakorik. Nire mezuak ere ez diezazuela zuek daukazuen solidaritate ideia hori galarazi, hori ez baita izan nire asmoa.

Ainhoa Larrañaga



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Ainhoa Larrañaga, Eduardo Zubiaurre eta Enrike Gorrotxategi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

HAURRAK GABONETAKO ERREGE

Abendu guztian zehar burututako ekintza ezberdinek jende askoren parte hartzea ekarri dute. Gauza guztien artean Elgetan lehen aldiz zabaldu den haurrentzako parkea da aipatzekoa.

Piano audizioa

Hilaren 13an eskola zaharretan hasi ziren ekintza hauek Piano audizioarekin, bertan Elgeta eta Eibarko ikasleek hartu zuten parte. Eibarko ikasle ugari bazeuden ere, Elgetako neska mutilen aportazioa ezin bestekoa izan zen bertaratuta jendea txundituta uzteko.

Umeendako festa Karaoke eta guzti

Hilaren 20an Gaztetxean umeendako festa zegoen antolatutarik. Merienda goxoa izan zen lehengo ipuin lehiaketan parte hartu zutenentzat. Lehendabizi txikiak eta gero gaztetxoak musikaz goza-

tu eta dantza egiteko aukera izan zutelarik ondoren. Dantza eta dantza artean abestera animatu zirenak ere izan ziren, horrela dantzaldia afal garai arte luzatu zen. Kantatzea zer den ondo dakite Kepa eta Pellok argazkian ageri den moduan.

Olentzeroren bisita

Urtero bezala hilaren 23an Olentzero etorri zen herrira. Bere lanak utzita Salbadorretik behera etorri zen gure Olentzero bere txakur eta guzti. Elgetako haur guztiak plazan zeuden gutunak emateko. Gutunak jaso eta hurrekin hizketaldixoren bat edo beste izan ondoren mendi aldera itzuli zen.


Eskolako ume, guraso eta andereinoak kantari

Gabon bezperako arratsean Jaiotza Bizia egon zen udaletxeko arkupetan. Goizean, urtero bezala bezala eskolako haur, guraso eta andereinoak kalean ibili ziren kantari. Aurten betiko kantuez gain beste kantu batzuk ere abestu dituzte. Horren adierazgarri kantu horietatik ateratako bertso hau edo portadan irakurri ahal izan duzuen:

"Eskerrikasko eta gora Olentzero! guk gogoan izango zaitugu urtero."


Haur Parkea

Hau izan da umeen parkea Elgetan zabaldu den lehen aldia.



Neska-mutilak lotsa barik aritu ziren karaokean

Arrakasta izugarria izan du. Haur ugari bildu ziren frontoi eta gimnasioan parkea zabalik egon zen hiru egunetan. Frontoian Intermoneko jokuak, ohe elastikoak eta golf txikia zeuden eta gimnasioan aldiz psikomotrizitateko jokuak (koltxonetak, ranpak, txirristak...) eta marrazketa txokoa ere bazegoen. Hala ere hurrek esan digutenez beraiei gehien gustatu zaiena aerobic-a izan da.



Olentzerok telefono gida ekarri digu elgetarroi



Haur, guraso eta andereinoak kantari gabon egunaren atarian



IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatu: 247262
tel: 789057-768025

HILARI BEISTEGIREN ESKUTIK ELGETAKO ERESERKIA

**-Gabonetako ekitaldien barruan Don Felipe Mugikak egin izan
zezakeen abestia gogoratu zen-**

Gabon inguruko ekitaldien barruan urtero egiten den musika ekitaldia aipatu behar dugu. Ozkarbiko koruak fin kantatu zuen Udaletxeko areto nagusian. Hilari Beistegik 91 urteko elgetarrak azken hilabetetan familiari abesten zion kantu bat ere abestu zuten Gernikako arbola kantuarekin batera.

Orain lau urte inguru konposatu zen Elgetako Ereserkia eta berau ere entzungai izan zen hilaren 27an. Hilarik kantatutakoa ez da inongo idatzietan agertu, urte-

tan zehar herriko pertsona baten memorian egon da, Hilari Beistegirenean hain zuzen ere. Hilarik esan zigunez Elgetako apaiz batek egin eta erakutsi zien beraiei abesti hau. Hilari ez da ondo gogoratzen nor izan zen apaiz hau baina litekeena da Don Felipe Mugika izatea. Apaiz hau eskolako koruko zuzendari zen eta hainbat haur egoten zen koru honetan. Abestia 6 bertso lerroz osatua dago eta Gernikako Arbolaren doinuarekin abesten da. Hementxe duzue Hilari Beistegiri grabatu genion kantuaren zatia

*Bada herri ederrik Gipuzkoa aldi
Baina bat bereziki daukat bihotzian
herri zoragarria goitxoren batian,
Bergarako herriaren, bidearen gainian
Elgeta du izena mendiaren gainian
Elgeta du izena mendiaren gainian*

Aldizkariko loteria kobratzeko

21.528 zenbakiko loteria txartelik baduzu zatoz zure diru pilaren bila. Partizipazio horien dirua jasotzeko, egun batzuk ipini ditugu: urtarrilak 2, 3, 10 eta 17, goizeko 10:30etatik 13:00etara. Aldizkarian izango gara ordu horietan txartelaren truke dirua banatzeko. Hurrengo alean beste egun pare baten oharra jarriko dugu dirua jasotzeko.

Telefono gida

Gabon garaian opariak asko izaten dira: metxeroak, agendak... Guk erregalu praktiko bat egingo dizuegu ale honekin batera, Elgetako telefono gida.


"Abizenak euskal grafiaz" kanpainari bukaera emateko egin dugu gida hau eta Elgetako etxeetan banatuko da Euskaltzaindiako oharrei jarraituta euskaraturiko abizenekin. Norbaitek gida jasotzea nahi balu *Goibekokale*-ra deitzea besterik ez du. 78.90.85 telefono zenbakira eta bertako erantzungailuan utzi zuen datuak, ahalik eta bizkorren eta debalde bidaliko dizugu gida etxera.

ASENTZIOKO KARAMARRO GORRIA GAIKO DAGO

Hile hasieran Diputazio-ko teknikariak Asentzioon izan ziren. Jon Zulaika ehiza eta arrantuzainak eta Iñigo Mendiola berezko fauna arduradunak bisitaren ondoren adierazi zuten, botika botako dute potzuan dauden karramarroak hiltzeko, pertsonaren batek karramarro horiek hartu eta beste erreka batetara botatzeko arriskua baitago. Botika honek bertan dauden arrainak akabatuko ditu

segurazki, nahiz eta bi astetako eragina izan.

Botikaren efektua pasatu ostean arrain berriak jaioko dira. Hala ere diputaziotik orain dauden eta gero jaioko diren karpinez aparte beste arrainen bat botatzea aztertzen ari dira. Udalak arrain berri horiek jatekoak ez izatea eskatu du. Potzuan jatekoak diren arrainak segituan desagertuko bailirateke.



Karramarroa hiltzeko botako dan botikak arrain batzuk hilko ditu.

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

LANAK AURRERA

Azkenik, urtearen bukaerarekin batera praktikantearentzat egin behar zen lokala eta azpian dagoen gaztetxean egin behar ziren lanak ere bukatzeko bidean jarri dira.


Lehen zatia, habeak indartzea, igeltsero profesionalak egin du. Bigarren zatia, komuna egin, hormak errebotatu, eta osterantzekoak auzolanean dihardute egiten Gabonetako oporrak aprobetxatuz.

Behin lanok bukatzerakoan praktikan-tearekin egon beharra dutenek ez dute medikua-

ren txanda berbera itxoin beharrik edukiko. Horrela asko bizkortuko da orain dagoen funtzionamendu era.

Etxea indartzeko lanak, habeak aldatzea, Bergarako Udalak ordainduko baditu ere subentzio baten bidez, beste guztia (prantikantearentzat lokala, gaztetxea konpontzea, komun berria egitea, etabar) Angiozar Bailarako Batzarrak ordainduko ditu.

Beraz, Zorionak bai Inakiri eta baita Nestorri, Olentzerok ez baina San Sebastianek egoitza berriztua ekarriko baitie.



Jaiotzak elizan

Aurten ere Belena ipini digute dotriñan diharduten gaztetxoek. Pasa den 22an, jendea loteria tokatu ote zaion zalapartari begira zegoenean, neska mutikoek oldeixa batu, artzai eta ardiei hautsa kendu,

errekarako papel albala etxetik hartu eta han ibili ziran Hautxoaren Jaio-tza prestatzen ilusio haundiz.

Benetan polita gelditu da, eta ikusi nahi duenak eliza barreneko alderean du ikusgai Erregenak arte.



ASTOAK

Lau hankakoak

Belengo atari hartan zegoen animalietariko bat idia izan ei zen eta bestea astoa. Biak ere lanerako animalia finak. Lehena, idia, azken urteetan desagertu da Angiozarren, egiten zituzten lanak traktoreak ordezkatu ondoren. Bigarrena, astoa, Europa guztitik desagertzeko arriskuan dagoen animalia omen da eta azken urteetan astoaren aldeko elkartek ere sortu dira. Ba hara non, egoera iluna izanik ere, bost asto erretratatzeko aukera izan dugun Angiozarko Liburutegiaren alboan dagoen zelaian. Lanerako prixarik barik.

Beharbada bertan asmatu beharko litzateke astoendako erreserba, leku askotan ez da izango eta horrela familia osoa

elkarrekin ikusteko aukera izango genuke.

Bi hankakoak

Lau hankako astoek eman die izena bi hankakoei. Lau hankakoen kaltetan egindako konparaketa dugu hau, benetan bi hankakoen ekin-tzak astoekin baino hezi gabeko pertsonekin baitu zerikusia.

Froga nahi duenak Gabonetarako ipini den adornozko bonbilei begiratu baino ez dauka. Gabon eguna baino lehen 20 (hogei) bonbilla apurtuta zituen balinazoka, (harrigarria kasua, galde-tu ezker, inork balin eskopetarik ez duen herrian) hainbeste kostatu den apaingarria hondatuz.

Bi hankako astoentzat ere erreserba asmatu beharra ote dago?

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar




Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

LEHIAKETA



Afari hauekin jendea animatzea ez da zaila. Auskalo zenbat afari eman ditugun Elgetako tabernen laguntzarekin, galdua daukagu kontua. Oraindik ez zaizula tokatu sekula? Ez izan beldu-rrik oraindik beste horrenbeste afari emateko asmoa daukagu eta.

Afaltzera joateko hiru pausu eman behar ziren: Karta idatzi, asmatu eta zozketan irabazle atera. Hiru pausuok egin dituenak du aukera afaltzera joateko baina oraingoan asmatzea falta izan zaizue. Argi dago argazkiko makina zer den, ezta? Beraz, hurrengoan izan beharko da.


Idazten jarraitzea besterik ez duzue. Afaria irabazteko trukean zerbait eman behar diguzue, erantzuna hain zuzen ere, erantzun zuzena. Oraingoan futbitoko porteriari lotuta dagoen animali hau zein den esan behar diguzue. Erantzuna badakizue nora bidali, **Goibekokalera.**

KOMIKIA



Ondo pentsatzen jatzu hainbeste diru gastatzia gabonetan?

Gabon sasoia aurten be etorri da. Pentsau dou jendiai galdetzia ondo ikusten daben hemen sasoiaren egiten dan diru gastua, bai afari ta bazkarixetan ta baita erregalotan.



Ikaslia (21 urte)

Neretzako ez zan gastau biharko hainbeste diru honek egunotan, gutxiaukin be ondo egongo zala pentsatzen dot. Gainera, holan erakutsi dozkuelakobakarrik segitzen dogu tradiziño moduan. Neretzako ondo pasatzeko egunak dira, bai etxian bai oporretan.




Etxeko andria (61 urte)

Ondo pentsatzen jata, baiña diru asko dakanak gehixau gastauko dau eta gutxi dakanak gutxiaukin konformau bihar. Ohitura dalako inportantiak dira honek egunok eta neretzako etxian familixan pasatzeko egunak dira.




Etxeko andria (54 urte)

Ez, ez dago ondo hainbeste diru gabonetan gastatzia. Askoz gutxiaukin be ondo pasau geinke. Neretzako ohitura bat dalako segitzen da. Gabonak, etxian pasatzeko dira.




Bihargiña (37 urte)

Ez jata ondo pentsatzen horrenbeste diru gabonetan gastatzia. Dana montaje komertziala da. Dana ohitturiagatik egiten dogu. Neretzako horrek egunok pasiau ta trankil ibiltzeko dira.



Etxeko andria (63 urte)

Egun inportantiak diane, ondo pentsatzen jata diru gehixau gastatzia. Gaiñera familixan ta edarto pasatzeko egunak dira. Neretzako ohitura politxa da ta gaiñera inportantiak dirala pentsatzen dot.



Ikaslia (16 urte)

Ez jata ondo pentsatzen hainbeste diru hola-ko gauzetan gastatzia. Piskat bale baiña hainbeste ez. Neretzako honek egunok inportantiak dia txikitatik erakutsi dozkuelako, baiña neretzako etxian pasatzekoak dira.

EROSLE
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

♈ Aries: Neurto gerri bueltia aspaldian goruz joiak/joian ta. Turroia, pastela, intxaur saltzia...

♉ Taurus: Ia egixa dan da aurten hasieratik hasten zan esandakua egitten.

♊ Geminis: Mobidu ipurdixa silla formia hartzen hasi da ta.

♋ Cancer: Jarri orri zuri-zurixa aurrian ta idatzi zure kuttunai. Kuttunak eskertuko dau idatzi izana.

♌ Leo: Segi turroia jaten, txarrik ez dua/dona ekarriko. Kilon batzuk akaso baiña besteik ez.

♍ Virgo: Beti nahi izan dozun bidajia alleauko da baiña ez zuk nahi ziñuan moduan.

♎ Libra: Jokatu erregenetako loterixan bultzada ederra emango dotzu ta gaiñera ilusiñua be euki bihar da.

♏ Escorpio: Erregalo batek ezustian harrapauko zaittu!!! Hori bai sorpresa eh?...

♐ Sagitarius: Azken orduko arazo batek merezi dozun oporrak pikutara botako dotzuz. Hurrenguan izango da!!!

♑ Capricornius: Laga bideuak ikustiañ ta juan hadi mendira burua freskatzera falta egitten dua ta.

♒ Acuarius: Egixok gonbitia hire kuttunari eskiatzera juateko. Baiña kontuz, eruan eruan biharrekuak eta gero eskiau.

♓ Piscis: Apuntau dantzako kursillora inguruko hanka danak zapaldu baiño lehen.

Eugeni Bolinaga Jubilaua (66 Urte)

- Zein da zuretzako egunian lehenengo egiñ bihar dan gauzia? Neure burua garbitxu, lanak egiñ, etxian zumua hartu ta tabernan kafesnia.

- Zein da egun normal baten egitten dozun lanik gustokue-na? Neretako danak dira gustokuk.

- Zein izan da zure gaztetako lanbidia? Bateko basarrixan, hurrengo josten baiña beti biharrian.

- Elixara faten zara? Bai. Zein da zure Santu edo Santarik gustokue-na? Amabirjiniañ fedia dotzat baiña bestela ez dakat beste gustoko berezirik.

- Zein da pertsona baten gehixen fija-tzen zazen gauzia? Ez nahiz fija-tzen ezertan, danai kaso egiñ ta kitto.

- Ze eskatu dotzazu Olentzeroi? Despertadore txiki bat.

- Ze nahixau dozu tintia ala farandola? Neretako tintia. Ta

ulerako koloreik gustokue-na? Rubixua.

- Gustatzen jatzu konprak egittera juatia? Bai asko. Noiz juan zara azkenengo aldiz? Aurreko zapatuan.

- Periodikua irakurtzen dozu? Bai, pixkat bai.

- Zein da errezen preparatzen dozun pintxua? Danak errez preparatzen dia, bai txorixua, bai rebueltua...

- Turroi gogorra ala biguna nahixau? Biguna nahixau, baiña ez nahiz turroi zalia.

- Goikokale ala bekokale nahi-xau? Lehen, goiko kaliañ bizi nitzaniañ, gustora neuan baiña oiñ, beko kaliañ bizi nahiz ta ez dakat asmoik gora fateko.

- Ze ekartzen dotzue gogora honek berbok: Haizea taberniak, gazterixia, karta jokuak, presuak. Etxian moduan sentitzen nahiz, poza, denpora pasatzia, tristuria.

- Frakak ala gonía nahixau? Frakak jasten dittut baiña goniakin gustorau nago.

- Gimnasia ze juaten zara, gustoz ala osasunerako ona dalako? Gustoz, ambientia egoten dalako.

- Zein da hemen bizitzan derrigorrez egiñ bihar dan gauza bat? Biharra, biharrik barik ezin leike bizi.

- Horroroskopua irakurtzen dozu? Ez, ez daukat afiziño haundirik. Ta sinisten dozu? Ez, bapez.

- Momentuan zelán ikusten dozu zure burua? Oso ondo, fenomeno bizi nahiz.



IBAIBA-RRIAGA
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

M^A Karmen Lenzeria

Lentzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

F . O . R

Kalitate kontrola


Piezei azken ukituak

salbador 19 behea

Tel: 76 80 38

97ko ONENAK

1997. urtea badoakigu eta *Goibekokalek* ez ditu ahaztu nahi izan, aurten kirol arloan izan dituen protagonista nagusiak. Ezin esan urte txarra izan denik, besteak-beste, gaztetxoak bikain aritu baitira eskolarteko kiroleran. Baina izen propio bat aipatzekotan, nola ez, Aitor Elkoro.



"Deba Arroa" Elgetara

Zalantzarik gabe urteko protagonista nagusia Aitor Elkoro izan bada ere, ez da bakarria izan. Pilotak eman digu bai poztasunik. Horren adibide garbiena Aitor Uberak, Berraondo bikote zuela, irabazitako Deba Arroko txapelketa. Xabierrek aldiz, ezin izan zuen finala irabazi.

Azpitxapeldun txapeldunena

Maiatzak 11, igandea. Elgetan Asentzio eguna ospatzen da eta Donostian... 29 urteko elgetar gazte bat buruz buruko finala jokatzeko prest. Aurrez aurre Fernando Arretxe. Azkenean 22-18 nafarraren alde. Berdin da. Arratsaldean ongi etorria Elgetan. Euria dihardu, eta zer! Plaza jendez gainezka. Azpitxapeldun txapeldunena. ESKERRIK ASKO AITOR!




Elgetako gaztetxoak, bikain

Aipagarria Elgetako gaztetxoek eskolarteko txapelketan egindako lana. Mutilek, partehartutako kirol guztietan lortu zuten finalera heltzea eta zein final jokatu aukeratu beharra izan zuten, gustokoen zutena aukeratu zuten: futbola. Txapeldun, nola ez! Neskak ere heldu ziren finalera baina penalty jaurtiketetan galdu egin zuten.

Saskibaloain hirugarren

Ezin esan "Estampaciones Elgeta"-k txapelketa bikaina burutu zuenik baina, hala ere, hirugarren postuan sailkatu ziren. Aurten emaitza hau hobetzea izango dute helburu. Bide onetik doaz.



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak


Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak


Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156




Bar Paseo eta Joixon Bertan nagusi

Urtero bezala, Elgetako kirolaren egun azpimarragarrietako bat futbitoko finala izan genuen. Nesken finalean Joixon Bertan eta Ri-Rau izan genituen aurrez aurre. Partidu entretenigarri baten ondoren Joixon Bertan txapeldun. Mutilen finalean berriz, ez zen herriko ordezkariarik izan. Angiozarrek eta Durangoko Heskeitakek jokatu zuten eta garaipena bigarren urtez jarraian bizkai aldera.



Elgetatik profesionaletara

Txirindularitzak ere badu bere lekutxo elgetarren bihotzean. Euskadiko Mendi Kriteriumaren XIII. edizioa izan genuen uztailaren hasieran. Garaipena Ernesto Manchonek lortu zuen. Bigarren postua Angel Castresanarentzat izan zen. Datorren urtean biak profesionaletan izango ditugu. Ez dago gaizki!



Galartza eta Etxaniz 4 t'erdiko txapeldun

Enrike Galartza nagusietan eta Iban Etxaniz gazteetan izan genituen 4 t'erdiko barruko txapeldunak. Baraibartarrak Berasaluze VII.a hartu zuen mendean (22-16), eta azkoitiarrak berriz Urberuaga aulestiarra (18-6). Aurten ere afizionatu mailako pilotaririk onenak ikusi ahal izan ditugu Elgetako frontoian.

GRUPU
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean

Tel:
76 80 98.

ALDI

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel. 768078

Gabonetako desio eta beldurrak

II. Ipuin lehiaketan

1997ko abenduan Umeen II. Ipuin Lehiaketa izan da. Elgeta eta Angiozarko umeen artean 36 ipuin aurkeztu dira lehiaketara. Ipuin onenak, iaz bezala, liburuxka batean aterako dira.

Aurtengo ipuin lehiaketako ipuin sarituak Elgetako eta Angiozarko umeen artean hauexek dira:

3. mailako, Janire Lazkano "Gabonak iritsi dira".

4. mailako Xabier Irazabalen "Olentzerok bakarrik ezin du".

5. mailan bi saritu daude, Angiozarko Izargi Vegaren "Opariak lapurtu" eta Elgetako Maialen Garateren "Gabonetako goiz politena".

6. mailan berriz Iratxe Castañoren "Olentzeroren etxea" izan da.

DBH-ko ikasleen artean ez da aukeratu ipuin irabazlerik epaimahaiaren ustez behar hainako maila ez dute erakutsi. Epaimahaiak 5. mailako ipuinen maila azpimarratu du. Aurten onena Maialen Garateren ipuina dela iritzi diogu *Goibekokalen*.

Gabonetako goiz politena

1997.ean Gipuzkoako herri txiki batean farnilia bat bizi zen. Maite izeneko neskatila polit bat, Andoni izeneko mutiko bat eta beste mutil bat Iker izenekoa. Gabonak zirenez, oso pozik zeuden denak elkartu egingo zirelako eta lehengusu lehengusinekin jolastu ahal izango zutelako. Arratsaldean eta lehenengo amona eta aitona etorri ziren, geroago lehengusu lehengusinak eta azkenik beste guztiak. Gaua heltzean zegoen eta familia guztia elkartuta zegoenez bakoitzak nahi zuena egiten ari ziren. Lehengusu lehengusinak jolasten. Amona eta aitona telebista ikusten eta besteak afaria prestatzen. Afaltzeko ordua heldu zen eta denak irrikatzen zeuden afarian zer zegoen jakiteko. Afaria ekarri zutenean denei gustatzen zitzairen zer-bait ekarri zuten, karakolak eta gero gainera postrea. Afariaren ostean denak loguraz zeudenez ohera sartu ziren. Gaua oso ondo pasatu

eta gero goizean erregalu eguna zenez, goiz jaiki ziren, Maite, Andoni, Iker eta beste lehengusuak eskailerak bajatu eta erregaloak zabaltzen hasi ziren. Maiteri, hitzegiten zuen panpin bat erregalatu zioten. Andoniri, bideo konsola bat eta Ikerri, Batman izeneko beste panpin bat. Asko gustatu zitzaizkien erregaliak eta beraiekin jolastea pentsatu zuten eta horrela egiten hasi ziren: Maite bere panpinarekin hitzegiten, Andoni bere bideo konsolarekin zaratak egiten eta Iker, Batmanekin airetik jolasten. Horrelako zaratarekin denak esnatu ziren. Bainan jakingo duzuenek ere erregaliak izaten dituzte. Bastante jolastu eta gero leihotik begiratu zuten eta edurra egin zuela ikusi zutenean saltaka erropak jantzi eta kanpora irten ziren. Trineoan ez zirenez denak sartzen, poltsetan bajatzen ibili ziren eta oso dibertigarria zela ikusi zutenean, familia osoa joan zen

beraiekin jolastera. Poltsa handi batzuk hartu zituzten eta binaka jarrita jolastu zuten. Batean aitona eta amona, bestean lehengusu-lehengusinak eta atzenengoan aita eta ama.

Denak barrez leherturik zebiltzan, batean aitona ez zela sartzen bestean jausi egiten zirela...

Goiz guztian jolastu eta gero bazkaltzeko ordua heldu zen eta bazkari gozo-gozo bat jarri zuen amonak.


Denak oso pozik zeuden elkartuta berbetan eta jolasten baina, etxera joateko ordua heldu zitzaien. Maite Andoni eta Ikerrek joan baino lehenago muxu bana eman eta Gabonetako egunik onenak pasatu zituztela esan zien. Horrela amaitu ziren 1997ko Gabonak.



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

**E
HARATEGIA
A
S
T
I**

San Roke 6
Tel: 768168.



Kopla bat

W.C.

Tel: 768093

Kartetan jokatzen giro egokia

P a t x i T a b e r n a

LEGATZ SOLOMOAK ALMEJEKIN
Sukaldariak: Asun Arruabarrena eta Arrate Olaortua.
Bolatoki Taberna





NOLA PRESTATU:

Lurrezko ontzi batean olio
 berotu eta berakatza txikituta bota;
 gorritutakoan, berakatza ontzitik atera.
 Olio hozten laga.

Hoztutakoan, legatzak azala
 behera begira duela oliotan sartu.
 Hamar minututan sutan ondo eraginez
 erabili, perrexila gainetik bota eta saltsa
 loditu artean eragin. Saltsa loditutako-
 an almejak gehitu. Zabaldur artean era-
 giten segi, eragitean baitago errezetaren
 sekretua.

OSAGAIK: (5 lagunentzako)

- 3 kg. legatza
- 1 kg. almejak
- Berakatza
- Oliba olio, gradu batekoa.
- Perrexila.
- Gatza.



GOMENDIOAK:

- Jaki guztiak bezala freskoak izatea beti egokiagoa izaten da.
- Legatza apurtu ez dadin, azala behera begira duela sartu behar da.
- Plater hau ardo gorriarekin lagundu daiteke.

Berezitasuna:
 Buztana.
 Pintxo gozoak,
 otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina



Soldadura homologatuak

Hoditeria

Errementeritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
 Tel: 76 81 01 Faxe: 78 90 14

PEDRO ARRAZOLA: "ETXEKUEI ESKAINTZEN DOTZET TXAPELA"

Gipuzkoa mailan txapel-dun bat ez da egunero izaten eta gutxiagu Elgeta moduko herri txiki baten. Horregaitik Pedroi elkarriketatxo bat egittia nahi izan dotzau. Pedrok berak esan dozkun moduan, Elgetan kazarako afiziño handixa dago, baiña baita beste jende bat ezer gutxi dakixena be. Lehenenguen gozamenerako eta bestiak asetzeko ona hemen elkarriketia.

- Zer dakazu esateko txapelketian gaiñian. Noiz izan zan? Aurreko hilian. - Nun? Koto del Castillon, Zambranan.

- Zeprueba modu dare? Piezak soltatzen dira, faizana eta eperra, gero danok batera urtetzen dogu eta zeinek gehixen hartu haixe nagusi.

- Zenbat denbora izaten da? 9:30etan hasi eta 13:00 arte.

- Zenbatek hartu zeban parte? Gipuzkuan, beteranotan, 30 lagun inguruk. - Txakurran laguntzia garrantzitsua da? Bai, txakur barik ezin leike egiñ.

- Beste modalidade baten ibilita zare? Bai, tiroplatuan ta... Lehen kontrarixoik be ez neban eukitzen.

- Klasifikatzeko ze probatan hartu dozu parte? Lehenengo Eibarko zonaldian egitten diran bi probatan lenengo hiruren barruan sartu bihar zara. Ta gero, Gipuzkuako txapelketan parte hartzen dozu, Euskadiko txapelketan parte hartzeko hemen be lehengo hiruren barruan sartu bihar zara.

- Irabazi dozu gehixautan Gipuzkuako edo Euskadiko txapelketia? Gipuzkuakua lehenengo aldiz eta aurten Euskadikuan bigarren geratu naiz. Aurreko urtian Gipuzkuan hankia lotuta eruan bihar izan neban. Hirugarren geratu nintzan.

- Elgetako besten batek parte hartu dau? Ez, nik bakarrik. Baina Eibar-ko "Sociedad Diana de Eibar"ko partaide moduan.

- Noiz hasi ziñan kazan? Aittakin zortzi bat urtekin.

- Ze harrapatzen dozu? Zozuak, biriarruak... aurrian harrapatzen dana, eperrak be bai, granjatik batzuk ihes egitten dabe ta.

- Elgetan kazarako afiziñoik badago? Haundixa, gazte onak dare.

- Ze esango zontzake Elgetan kazara juaten dan jende gaztai? Gaztiei ezin dotzet ezer esan, gaur egunian gu baiño askoz espabilauak dira ta.

- Kazarixok errespetatzen dozue naturaia? Batzutan bai.

- Ze esango zontzake naturaia errespetatzen ez daben kazari



Pedro sarixa jasotzen.

bati? Ez dakit, ze pentsatzen dotxia inok ez dabela errespetatzen.

- Orduan ekologistek arrazoia dake naturiaganako errespetua falta dala esaten dabenian? Ekologistak gauza batzutan badake arrazoia. Baiña askotan eurak be ez dabe errespetatzen.

- Txapelketan emakumen batek parte hartu zeban? Bai askok.

- Zeini eskeintzen dotzazu txapela? Etxekuei.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

“Estampaciones” bikain Eibarreko txapelketan

Bikain. Ez dago beste hitzik. Hamaika ihardunaldi jokatu dira eta porrot bat besterik ez dute oraindik bere baitan “Estampa”koek. Azken urteetan bezala joko aldetik ezin esan oso ondo dabilzanik baina partiduak nahiko erraz irabazten dituzte eta azken finean hori da garrantzitsuena. Hilabete hau oso ona izan dela esan dezakegu, ordurarte sailkapeneko lehengo eta bigarrenak menpean hartu baititu. Orain elgetarrak ditugu lehenengo postuan berdindurik eta emaitza on hauek lortzen jarraitzen badute pasadan denboraldiko hirugarren postua hobetzeko ez dute arazo handirik izango.



Gorkak ardura handiagoa hartu beharko du aurten.

Urtarrilean hasiko da futbito txapelketa

Urtero bezala, urtarrilean hasiko da futbito txapelketaren edizio berri bat. Lehenengo bilera bat konbokatatu zen arren ez zen berau egin, bilerahorretara talde bateko ordezkari bat bakarrik aurkeztu baitzen. Gertatutakoa ikusi ondoren beste bat egitea erabaki dute ardura-dunek. Espero dezagun oraingo honetan gauzak hobeto egitea.

Umeak hasi dira eskolarteko kiroletan

Pasadan urteko esperientzia errepikatuz, aurten ere, elgetako umeak badihardute eskolarteko txapelketetan. Txapelketa irabaztea lortu zuten mutilak futbol 7 deritzanetik hamaikarekin jokatzen denera pasatu dira. Oso ongi ari dira gainera. Orain arte jokatutako partidu guztiak irabazi egin dituzte eta gainera ez dute golik jaso.

Gazteagoak ere ari dira kirola egiten. Hauek hiru kirol egitera behartuta daude (saskibaloia, eskubaloia eta futbola) denetarik ikasi dezaten. Orain arte futboleant aritu dira partidu guztiak galduz. Neskak ere partidurik irabazi gabe daude oraindik. Ez dezagun ahaztu adin horietan garai-pena lortzea gutxienez dela eta badaudela beste faktore batzuk askoz ere garrantzitsuagoak direnak: lagunak egitea, ongi pasatzea, beste leku batzuk ezagutzea...

Gabonetako bolo txapelketa Angiozarrera


Angiozarrak izan ziren gabonetako bolo txapelketako protagonista nagusiak. Hiru lehenak bertakoak izan ziren eta beraz, pozik egoteko arrazoirik ez zaie faltako.

Txapela Sebastian Arantzabalentzat izan zen bost ihardunaldietan 12 txirilo bota ondoren. Bigarren eta hirugarren postuan Jesus Mari Gorosabel eta Jose Maria Alberdi sailkatu dira bakoitzak 11 txirilo bota ondoren. Hori gutxi balitz Gabonetako sekoa ere Sebastian Arantzabalentzat izan da.

Txapelketak izan duen harrera ona ikusirik antolatzaileak datorren urtean ere errepikatzea pentsatuta daukate.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

**BILTEGI
DENDA**

Zugandik
gertu behar
dugun beste

Salbador 24 Tel: 768206

GOIMENDI

Ermita: San Migel Monte

Jaia: Maiatzak 8an

Normalean San Migel egunetik hurren gelditzen den zapatu arratsalde eta gauean ospatzen da jaia: Meza elizan, luntxa elizaurrean eta gero iluntze aldera auzotarren (bertan eta kanpoan bizi direnen) afaria Kanpazarren.

Nahiz eta azken urteotan galdu xamarra egon, San Iñazio egunak ere indar handia eduki zuen. Jai hau Kanpazarren ospatzen da, eta beste lekuetan bezala muga egiten duten lurretako edo artzai uneetako jaia da (Urbian, Gorbeian,...)

Baserriak eta etxeak:

- Zelaitxueta (Zelaitxo)
- Lasarte
- Zulueta Gainekua (Zulota)
- Zulueta Azpikua (Zulota)
- Pagadigorria (Paiorri) hormak.

- Gongeta, bi bizitza:

- Lazpiur familia (erorita)
- Arbulu familia (hutsik)
- Gontzarri Gainekua
- Gontzarri Azpikua
- Ametz Azpi
- Lope Barri

- Lopealdeoste (Lopaldoste, Lope), bi bizitza:

- Ugarte familia
- Loiti familia
- Altuna (Altune) hutsik

Gongeta

Gongetak ere bi dira, elkarri bizkarra emanaz; bata ekialdera eta bestea medebaldera begira. Bi etxeetatik bat dago zutik, baina hau ere hutsik, nahiz eta ganauak eduki bertan eta bizitza bertan egin.

Etxearen albo batean, orain erorita dagoenean Pedro Laspiur bizi izan zen azkenengoz, duela 25 urte Arrasatera alde egin zuen arte. Izen horrekin, Pedorenakin, nahiko gauza bitxia egon zen Angiozarren: hiru lagunek zeukaten izen eta abizen bera. Oraindik Pedro Laspiurretarriko bat bizirik dugu, Altzarrikan.

Etkekonekoak Arbulutarrak dira, nahiz eta joan zen mendean etxean zegoen abizena Azkarate izan. Felix eta Ramona anai-arrebak izan ziren azken biztanleak. Felixek erosi zion etxea Iturri-gaztelu elgetarrari mende honen bigarren erdian, San Pedrotako ferian egindako tratuan.

Gongeta ezkutuan eta urruti egotetik hurbil eta ia-ia kaminero etxe bihurtzeraino bide ertzean gelditu da gaur egun. Orain dela hogeitamar urte egin zuten autoentzat bezalako bidea etxeraino, baina azken urteetan egin diren lan ikaragarriekin Epeleko bariantearen alboan gelditu da, gaintxotik Sarako bidegurutzearen kontrola daramalarik.

Zulueta Gainekua (Zulota)

Bi Zuloetatik hauxe da etxerik bikainena egiturari begiratu. Auzoko beste etheen barne antolaketa errespetatuz palazio itxura du, bere harlandu eta leihotako eserlekuekin. Arku ederra, zabal eta zapala. Badirudi Zulu edota Zulota izen hau lekuizena baino gehiago etxea eraiki zuenaren abizenetik datorkiola, Zulueta-tarrak oñatiarrak baitira jatorriz. Bertan dago izen bereko jauregia.

Teoria hau gaur egungo etxearen jabeak Logroñoko Herrero de Tejada familia izateak ere indartzen du, aspaldiko maizter sisteman jarraitzen duen etxe bakarra.

Etxea hutsik dago gaur egun, merezi ez duen egoeran eta jausteko arriskuan zati batzuetan.

Murua familia izan da azkenengo bizi izan dena bertan. Baina ez da izan mende honetan bizi izan den bakarra: Felix Askasibar eta familiak lehenik, garagartzara alde egin zuten arte; Altubetarrak bizi izan ziren gero gerra denborararte (Gregorio Altube urtetan Angiozarko sakristaua izan zena hemengo zen, eta baita gaur egungo Bergarako alkatea den Victoriano Gallastegi Altuberena ama ere); eta azkenik, gerra ostean, Muruatarrak etorri ziren Abadiño-ko Atxartetik, gaur egundaino jarraitzen duen familia hau eta bere

jatorrizko berbeta galdu ez duena (Jose Maria Murua, gizon aurrerakoia bere denborarako, izan zen Goimendiko bidea bultzatu zuena, denak animatuz langintza horretara. Bere asmakizun batzu oraindik komentatuak dira auzotarren artean, eta atarian ikusgai ere bai baten batzu).

Zulueta Azpikoa

Seguruena gainekoaren ostean egindakoa, modu apalagoan dago egina, zeukan arku eskarzadun atea ere desagertuta duela. Banaketa ezaguna barruan, kanpokaldean txukun eta apain dago zaindua, mahats parra handi batek fatxada osoa hartzen diolarik.

Gerra ostean ezagutu zituen aldaketa handienak, batez ere altura aldatuz etxostean.

Askasibar familia izan dugu bertako, nahiz eta gaur egun Gorosabel abizena daukaten azken bi belaunaldiek. Gorosabel abizena Lasartetik zabaldu da hona.

Etxe honetakoa da Jesus Mari Gorosabel, bola-tokietan (ahal duenean) jokalaririk onenetarikoak.

Altuna

Normalean bertakook Altune ahozkatzen dugu etxe honen izena. Etxe galanta, oin

karratuduna, plantako metro karra-
tu gehien duen etxea de Angiozara-
rren. Goimendi leku aldapatsua
izan arren etxe hau patxada haun-
diko lautadan dago eraikia, etxe
ostea uneka singira uneka leze
delarik. bere ingurua nolakoa zen
asmatzeko etxerik egon baino lehen
han hemenka aurki ditzakegun
arteak ditugu. Gorago pagadia izan
zen bezala baso zabalena, hemen,
beherago artea eta haritza izan
ziren zuhaitz zabalduenak.

Etxea bera, baserri eta jau-
regi tarteko itxurarekin eraikitakoa
da, alboetan itsatzita zituen txabo-
lak botatzean nabarmenago ikusten
dena. Hegoaldera begira dauka
etxaurrea, etxe gutxi duten lau
ureteko teilatua du. Etxetik hurbil
dagoen Montorra deituriko tontor-
txoa, etxea bera baino aurrerago
zegoen beste eraikuntza baten
kokaleku izan daiteke. Berrehun
bat urte ditu etxeak itxuratik.

Altune baserria mende
honen erdirarte bi bizatzako etxea
izan da, atariaren eskuma aldera
ugazaba bizi zelarik eta ezkeralde-
ra errenterokua. 1967az geroztik
hutsik dago Angel Laspiur eta
Francisca Olañeta izan zituelarik
azken biztanle.

Altuneko Juan Pedro Las-
piurrek ordaindu zuen 1863an San
Migel elizatzuan ipintzeko kanpaia
eta kanpaitokia.

Etxe honetakoa zen Daniel
Laspiur, orain dela 70 urte, 1927an,

Angiozar Bailara Elgeta izatetik
Bergara izateko aktan sinatu zuen
zinegotzietariko bat.

Gerra ostean, bi urtez egon
zen gordeta Gregorio Laspiur, ber-
tako semea, denek herrian ihes
eginda zegoela uste zutena.

Altuneko da baita gaur
egun Angiozarko alkate dugun
Gorka Elortza Laspiurren jatorria.

Lasarte

Lasarte izena "lasa" edo
"latsa" izenetik dator. Errekaxo
arte esan nahi du, lekuaren egitura
izendatuz. Etxaburuan aurkitzen
den zingiran eta gorago sortzen da
etxe ondotik pasatzen den erreka-
txoa, zeinen urak hartzen baitiran
askarako eta baita edateko ere.
Ekialderantza metal-ura deitutako
iturria dago, zuzenean lurretik
irtetzen duen iturri ederra, daka-
rren burdina kopuru handiagatik
inguru guztia gorriztuta daukana,
parajearen berdearekin kontraste
ederra sortuz.

Lasartek Goimendiko etxe
arruntenen egitura du. Ekialdera
zuzendua, ohi denez bizilekua
hegoaldean du kokatuta eta korta
eta zabaiak iparraldean, bi aldeon
artean ganau askak ileran daude
pasilo luze bat sortuz. Etxe honek
teilatua miru-buztana deitzen den
erakoa du, aurrean biuretakoa,
atzean hirukoa.

Gaur egun Gorosabel abi-



Zuloeta gainekua baserria. Atea eta
ezkutua.

zena ezaguna bada ere Lasartekin
lotuta, bolajokuan eta baita azke-
nengo Santo Tomas ferian ganaue-
kin izandako arrakastagatik, aurrez
Garmendia abizena zeramatzen
etxean joan zen mendearen azken
erdialdean hiru neska jaio eta beste
erremediorik gabe "dinastia" alda-
keta ekarri zuen arte. Joan Bautista
Gorosabel Arrotatik ezkondu zen
Lasartera, hemendik zabaldu dela-
rik gero apiludoi hainbat lekutara.

Lasarten Euskal Herriak
bizi izan dituen azken bi gerrateek
marka laga dute. Azken gerra Kar-
listan behekosu aurrean jarrita
zegoen aitxajauna tiroz hil zuen
soldadu liberal batek karlista solda-
du batekin konfundituta jantzita
zeukan kaparengatik. Behin sukal-
dean gizona hil eta alboko gelarako
atea baionetaz arrakaltuz leihotik
saltio eginda ihes egin zuen. Orain-
dik han dago atea baioneta marka
eta guzti.

1936ko irailetik 1937ko api-
rilera bitartean familia guztia saka-
banatuta ibili zen etxea hutsik egon
zelarik tropa franquisten menpe,
Intxortako frentearen zati. Bertako
Atanasio Gorosabel ganauak hartu
eta mobilizatua izan zen, Karran-
tzaraino heldu zelarik bederatzi
hilabetetako bidaian, bidean Gerni-
ka erretzen eta Bilbo franquisten
esku erortzen ikusiz.

Etxera itzultzean txakurra
aurkitu zuten bakar-bakarrik.



Altune baserria etxe ostetik. Atzealdean Udalaiz.

Agur, OlentzerUA, Agur

Aurten be etorri da OlentzerUA Euskal Herriko leku danetara. Ezingo da ke jau egitten jakon ongi etorrixakin (bueno, Araban bai). Ume eta zahar, neska-mutiko eta aitta-amak, danak izan dittu bere zain gabon egunian. Eta gero, hurrengo egunian, a zelako poza! Etxia erregaloz beteta laga dozkula ta.

Baina zein zan Olentzero? Jose Manuel Egia Andia antropologuan azken estudixuak esaten dabenez, Jesus jaio zanian Olentzero hor zebillen mendixan ikatza egitten, txondorra ixotuta ekan eta behin, txondorra zaintzen ziharduanian, argi biziko izar bat ikusi eban. Argixa zeozerren seinale izango zala ta, argixorrei jarraitzia erabaki eban.

Jarraitxu eta jarraitxu, halako batian ailegau zan Jerusalem inguruetara. Bidian halako txirlo batzuk ikusi zittuan, ta laster inguratu eben lau bat erromatarrek. Preguntaka hasi jakozen: ia nundik zetorren, nora zoian, zegaittik...


Gure mutilak txintxo-txintxo esan zotzen etxian aspertzen zala eta bidaiatxo bat egittia erabaki ebala. Erromatarrek ume bategaitxik pregtantau zotzen, baiña, berak ezer jakin ez. Hasieran izar bati jarraika zebillela esatia okurridu jakon, baina, hori kontauta putz egittera behartuko zebela ta, porsiakaso ezer ez aittatzia erabaki eban.

Jeresulenen geldittu zan egun batzuk pasatzen, eta hango taberna baten lagun batzuk zittuan. horrek Lagunorrek esan zotzanez hiru erregiei laguntzen etorri zian eurak, izar argitsu bati jarraitzen. Erregiak Belenera joan ziala, izarra bertan geldittu zalako, eta oin eurak pare bat egun libre zeukela; baina, berriro be, erregiangana bueltau bihar ziala. Olentzerok esan zotzen bera be izarran atzetik etorri zala, eta ez bazotzen ardura, elkarrekin fango ziala Belenera. Belenera fan aurreko gabian kriston juergia egiñ eben, eta hurrengo egunian izarpera ailegau zianian, hor fan zan Olentzero, balantx, txabola zahar batera.

Lagun barrixok esan zotzen Jaungoiko bakarra euala bertan, eta Olentzero barrura sartu zan bittan pentsau barik. Barruan erregien erregaluen onduan laga eban ikatz sakua, eta Mariak, eskertzeko, bedar batzuk emon zotzazen, beste ezer ez eukan ta. Gero, Jerusalem beste paradatxo bat egiñ ostian, etxerako bidia hartu eban. Luze egiñ jakon bueltia, urte bete inguru. Honuzkotan Errioxan kapoiak eta ardaia erosi, eta holan agertu zan bere herrira, Marian bedarrakin betetako bedar usaingoxoko pipa ta guzti. Egia Andia antropologuan lana sinistia gatxa bada be, honek egunotan urtero-urtero entzuten doguzenak eta kantatzen dozkuzenak sinistuta, ez da hain gatxa izango.

Eta oiñ, bi milla urte beranduau, umiak eruaten doguz ikazkin tripazale, moskorriño, erretzaile eta zikin batengana gabon egunian.

Enrike Gorrotxategi



7
L
E
A
D
A
7
N
D
E
G
7
A

M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.



tel: 768273

**Iragarri
zaitez.**

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

VIVO
Janari
Jandenda

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

**DEKOLETAIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK**

Berraondokua Z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203



Argazkia: Sabin Arantzeta (Urrejalei)

Loiola batalloiko Elgetako gudarixak

Hau erretratuau 1936xan etarata dago, honek taldionek Gernikan zekan kuartelian

Tituluak esaten daben moduan Loiola batalloiko kidiak zian. Hemen erretratuan ez dare danak baiña bai gudarixetako batzuk. Hemen darenak batalloiko elgetarren taldia osatzen eben.

Gaur egunian hor taldeko hiru bakarrik bizi dira. Batzuk gerratian hil zian eta beste batzuk harrezkero ondoezak jota, edadiagaittik eta bizitziak emoten dittuan beste tratu batzugaittik.

Honek gudarixok bai euki ebela borrokarako inddarra. Gerratian parte hartzia ez da edozer. Meritua bae-ken behintzat.

Jarraixan gudarixon izenak emongo dittugu:

Goikaldian: Markiko Juan Pedro, Arraiko Eustakio, Urrejaleiko Anastasio, Mariano Zabalaneko kriaia, Uruburuko Jose eta Errekaldeko Pedro.

Erdixan: Urrejaleiko Angel (tente dagona), Ergubideko Fidel, Altubeko Segundo, Udaixako Manuel, Urrejaleiko Jose Mari, Etxetxuko Karlos eta Ubaldo Aranburuko kriaia.

Bekaldian: Apata Altubeko kriaia, Eugenio Iñaxio Meienekua, ezagutu ez dogun gudari bat, Demetrio Udaixanekua (tenientia), Uruburuko Angel, atzeratxuau Fernando Zeleta eta azkenengo San Juango Lorentzo.

Ibargarai, 11-13
BERGARA
Tel - Faxa: 767058




MODELO BERRIAK
Kalitate hobeia preziorik onenean!



OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU

ELGETAR GUZTIOI

*EGUBERRI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON,*



*PAKEAN ETA
ALAITASUNEAN.*